



# JARDUERA PLANA 2022



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# JARDUERA PLANA 2022

## Aurkezpena 3

### 1. Eragiketa estatistikoak 4

- 1.1. BERRITASUNAK 4
- 1.2. AZTERLAN KOIUNTURALAK ETA SINTESIKOAK 5
- 1.3. LANKIDETZAK 5

### 2. Azterlan kualitatiboak 6

- KULTURGINTZA ETA JASANGARRITASUNA. APLIKAZIO-PROPOSAMENAK 6
- COVID KRISIAREN AZTERKETA AMAITZEA 6
- LAN- ETA ENPLEGU-BALDINTZAK. JARDUNBIDE EGOKIEN KODEAK 7
- ONDARE GARAIKIDEA BERRESKURATZEA ETA BALIOESTEA 7
- KULTURA ETA OSASUNA 7
- ERALDAKETA DIGITALA. FORMATUEN EGOKITZAPENAK ETA MONETIZAZIOA 8
- SEKTORE-ALDARRIKAPENEI IREKITAKO TXOSTENA 8

### 3. Kulturklik 9

- KULTURKLIK ETA BEHATOKIAREN ADIERAZLEAK BAT ETORRARAZTEA 9
- KULTURKLIKEN SEXU-ALDAGAIA GEHITZEA 9
- KULTURKLIK-PRO DEIALDIEN ATALA OPTIMIZATZEKO BILATZAILEA 9

### 4. Komunikazioa 10

- ARGITALPENEN BILATZAILEA WEB-ORRIAN 10
- KULTURKARIA BULETINA BIRDISEINATZEA 10



# AURKEZPENA

Jarduera planak 2022rako aurreikusten diren ikerlanen katalogoa barne hartzen du, hala ikuspegi kuantitatibotik nola kualitatibotik.

Estatistikaren alorrean, Behatokiaren bi eragiketa handiek baldintzatzen dute programa: helburu dutenak, batetik, kulturgintzako eta sormen-sektoreko gastu publikoa ezagutzea, eta bestetik, arteen eta kultura- eta sormen-industrien ehuna ezagutzea. Kultura-ohiturei eta enpresa-konfiantzaren adierazleei buruzko luzetarako bi panelak gehitu behar zaizkie haiei. Berritasunen eta hobekuntzen artean aipatu behar da adierazle berriak sartzea, besteak beste, generoa edo GJHak, Behatokiaren estatistika-multzoarekiko zeharkakoak direnak.

Nabarmentzekoa da, halaber, beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako azterlanen ildoak, adibidez, Eustat, Orkestra eta EHU-UPVrekin, ezagutza-leiho berriak irekitzen baitizkio Behatokiari, bai aztertzen diren edukiengatik (lehiakortasuna, ikus-entzunezko kontsumoa, generoa), bai alderdien elkarrekiko ikaskuntza-prozesuagatik.

Alor kualitatiboan, proposamenak zazpi azterlan berri barne hartzen ditu, sektore-agenda, testuinguru sozioekonomiko orokorra eta kultura-politikak mugarrizten ari diren gaiei buruzkoak. Maila guztietan, lehentasun politikoen gai nagusiak ukitzen dituzte ikuspegi kultural batetik, hala nola jasangarritasuna edo eraldaketa digitala; Behatokiaren erronka berriak, esate baterako, ondare garaikidearen azterketa edo kulturaren eta osasunaren arteko lotura; edo lanbiderako beti puri-purian dauden gaiak, demagun, lan-baldintzak.

Kulturklien inguruko langintzak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatuko dute aurtengo programa. Behatokiaren helburua errealitatea eraldatzen laguntzea da, 2022an aurrez aurre ditugun gizarte-erronka handiei buruzko datuak eta ezagutza eskainiz.



# 1. ERAGIKETA ESTATISTIKOAK

Arlo estatistikoari dagokionez, berritasun nagusia finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikan nabaritu da, sormen-sektoreak barne hartuko baitira. Horiekin batera, Behatokiak sustatzen dituen eragiketa koiunturalak eta sintesikoak daude.

## 1.1. BERRITASUNAK

### • **Kultura-alorreko eta sormen-sektoreetako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika 2020**

Estatistikaren alorreko urteko berritasun nagusia zera da, sormen-sektoreetako gastua gastu publikoaren eragiketetan sartzen dela. Landa-lana burutu ondoren, kulturgintzara eta sormen-sektoreetara bideratutako gastu publikoaren emaitzak ezagutaraziko dira urtean zehar.

Sormen-sektoreei dagokienez, ekarpen garrantzitsua egiten du azterlanak, lehen aldiz, arkitektura, diseinu, publizitate, hizkuntzaren industria, bideojoko, moda edo gastronomia sortzailearen sektoreetako gastu publiko osoari buruzko datuak izango baititugu.

Estatistika bikoitz horretarako, 224 erakundek osatzen dute unibertsoa kulturaren esparruan (176, udalak, aldundiak eta Eusko Jaurlaritza batuta; 48 erakunde autonomo, fundazio eta sozietate publikoen artean); eta sormenaren alorreko 185 erakundek (178, udal, aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren artean; eta beste 7, erakunde autonomo eta sozietate publikoak batuta).

### • **Arte, kultura-industria eta sormen-industrien estatistika 2021**

Aurten hasiko da eragiketa bikoitz horren landa-lana. Arte eta kultura-industrien estatistikaren zortzigarren edizioa da, eta sormen-industrien estatistikaren hirugarren edizioa.



## 1.2. AZTERLAN KOIUNTURALAK ETA SINTESIKOAK

### • Luzefarako panelak

Kultura-ohituren eta -praktiken panelaren jasoaldi bat egingo da; horren bidez, jarraipena egiten zaio parte-hartze kulturalaren eboluzioari, 204 pertsonako lagin finko batean oinarrituta.

Enpresa-konfiantzaren adierazleen panelaren beste jasoaldi bat egingo da. Panela bikoitza da, eta arteetako eta kultura-industrietako 70 eragilez eta sormen-industrietako beste 70ez dago osatuta.

## 1.3. LANKIDETZAK

Behatokiak akordioak egin ditu unibertsitate-esparrutik ikerkuntzan diharduten hiru erakunderekin:

- Orkestra, Lehiakortasunaren Euskal Institutua, Deusto Fundaziokoa: kultura- eta sormen-industrien posizionamenduari buruzko azterlanak.
- NOR Ikerketa taldea, EHU-UPVkoa, Aplikazio proiektuan: gazteen ikus-entzunezko kontsumoari buruzko azterlanak.
- AFIT-Antropologia Feminista Ikerketa Taldea: Behatokiaren estatistika ofizialak generoaren ikuspuntutik aztertzea.

Azkenik, eta beste esparru batean, Behatokiak EUSTATEkin duen lankidetzaren nabarmendu behar da; lehen Kulturaren Kontu sateliteak egiten ari da.



## 2. AZTERLAN KUALITATIBOAK

Behatokiaren eta Jarraipen Batzordearen proposamenetatik eta sektoreen eskaeretatik abiatuta diseinatzen da programa.

### **KULTURGINTZA ETA JASANGARRITASUNA. APLIKAZIO-PROPOSAMENAK**

2018an, Behatokiak txosten batean gogoetan egin zuen kulturgintzaren eta garapen jasangarriaren arteko loturaren kontzeptuaz. Duela lau urte jasangarritasuna eta kulturgintzaren arteko lotura agenda politikoetan agertzen hasi zen, 2015ean Garapen Jasangarriko Helburuak onetsi zirenean, NBEren 2030 Agendaren esparruan. Harrezkero, hausnarketa aberastu egin da 2019an eta 2020an Garapen Jasangarriko Espainiako Sareak, Alfons Martinell buru dela, egindako ekarpenekin. Horrez gain, pandemiaren ondoren, gai hori lehentasunezko zat jotzen da.

Oraingo honetan, hausnarketari gehitutako berrikuntzak berrikusteaz gain, aurrerapausoa eman nahi du. Programa politikoek zeharkako ardatz dute jasangarritasuna, eta beharrezkoa da, alde batetik, GJH horiek kultura-politiketan txertatzea eta, alderantziz, ondorio hauek inplikatzeko dituzten dimentsio-kategoriak ezarriz:

- \_ Egiteko modu berriak (praktikak, programak).
- \_ Epe luzerako egiturazko aldaketak.
- \_ Inbertsioak eta ekipamenduak.

### **COVID KRISIAREN AZTERKETA AMAITZEA**

Pandemiaren olatu-segidak eragindako murrizketak luzatu direnez eta noiz arte iraungo zuten jakiterik ez zegoenez, COVID-19aren eraginaren azterketaren amaiera atzeratzea erabaki da.

Behatokiak ez du *ad hoc* informazio-bilketarik egitea aurreikusten; izan ere, bere iturri ohikoetan (bi urteko estatistiketan eta paneletan) metatuz joan diren datuak eta adierazleak ditu. Horri gastu publikoaren estatistikaren informazioa gehitu behar zaio, 2020ko datuekin, pandemiak aurrekontu publikoetan izan duen zuzeneko eragin kuantifikatzeko aukera emango baitute haiek.



## LAN- ETA ENPLEGU-BALDINTZAK. JARDUNBIDE EGOKIEN KODEAK

Azterlan honen bidez, orientabideak eta ideiak eman nahi dira, artistaren estatutuaren eta profesionalizazioaren inguruan egindako analisiak osatzeko, alderdi praktikoak azpimarratuz, adibidez, tarifak, kontratazioak eta abar.

Berraztertuko dira araudia, beste testuinguru batzuetan lantzen ari diren alorreko jardunbide egokiak, profesionalek lan-alorrean dituzten aldarrikapenak eta elkargo profesionalek eskaintzen dituzten orientazio-zerbitzuak. Administrazioak egikaritzen ari diren estrategiak ere aztertuko dira.

Azterketaren emaitza modura, kulturgintza-sektoreko lan-baldintzak hobetzeko orientabideak planteatuko dira.

## ONDARE GARAIKIDEA BERRESKURATZEA ETA BALIOESTEA

Nola desager daiteke herrialdeko arte-zentro nagusiak enkargatu zuen Richard Serraren 38 tonako eskultura bat? Galdera sinestezin horren erantzunak, arestian argitaratu den nobela berri baten gaia ez ezik, ondare garaikidearen egoerari buruzko gogoeta egiteko bidea ematen du. Ikuspegi positibo batetik, Artium, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak 101. *Ondare publikoa eraikiz* erakusketa aurkeztu berri du. Erakusketaren izenburuko zenbakiak aipamena egiten dio Eusko Jaurlaritzaren funtsetatik museoaren bilduman 2021era arte gehitutako artelanen kopuruari, eta 1982 eta 1995 urteen arteko Gure Arte sariari lotuta daude haietako gehienak.

Zer irizpide hartzen dira aintzat ondare garaikidea balioesteko eta kontserbatzeko? Zer gorde daiteke eta zer gorde behar da? Oraintsuko ondarea –adibidez, arkitektura modernoa, saltoki edo kafe historikoak– galtzen ari den susmoa funtsatua al da? Nola eman diezaiokegu balioa horri? Zer egiten ari dira beste ingurune batzuetan?

Azterlan horren bidez, gai horiei buruzko hausnarketa egin nahi da, alor horretan garrantzitsuak diren datuak eta erakundeen orientabideak eskainiz, bi ikuspegitatik:

- Zer den ondare garaikidea (XX. mendea?); oraintsukoa izateagatik halakotzat hartzearen arazoa; hori kontserbatzeko gomendioak, esate baterako, Europako Kontseiluak 1991n arkitektura-ondareari buruz emandakoa; bizimoduaren isla den heinean duen garrantzia, memoriarekin duen lotura eta abar.
- Egungo arte-ondarearen kontserbazioari buruzko hausnarketa. Museo handien hausnarketaren muin-muinean dagoen gaia da hori, barne hartzen duen erronkagatik. Nola kontserbatu material iragankorrak edo performatiboak? Nola tratatu behar dira arte digitala edo NFTak?

## KULTURA ETA OSASUNA

Kulturaren, osasunaren eta ongizatearen arteko harremana eztabaidetan aspaldidanik agertzen den gaia bada ere, Behatokiak ez dio orain arte azterlanik eskaini. Izan ere, → **OMEk** eskala handiko txosten bat argitaratu zuen 2019an, osasunaren eta arteen arteko harremana aztertuz. Egia da balio soziala edo berrikuntza neurtzeko adierazle-ereduetan kontuan hartzen dela kulturak osasunean duen eragin positiboa, baina praktikan ez da aurrerago joan.

Bestalde, pandemiak osasun mentalaren gaia ekarri du eztabaidaren erdigunera. Interacció foroa, bere azken edizioan (2021eko azaroan), esate baterako, kulturaren eta osasunaren arteko loturari buruz hausnartzen aritu da. Bestalde, Europako Batzordeak kultura-praktiken eta osasun mentalaren eta ongizatearen arteko harremana ikertuko duen azterlan bat sortu berri du, Culture Action Europek koordinatuko duena. Helburua da politikak benetan aldatzea eta erreferentziako plataforma bat sortzea, osasunaren eta ongizatearen dimentsio berri baterako politikak esperimintatzeko eta garatzeko.

Testuinguru horretan, azterlanak proposatzen du berrikuspen bibliografikoa eta gaiaren azterketa sakona egitea.



## **ERALDAKETA DIGITALA. FORMATUEN EGOKITZAPENAK ETA MONETIZAZIOA**

Pandemiaren esperimentu behartuaren ondoren, zer ikaskizun atera daitezke?

Pandemia baino lehen, kultura-erakundeen errealitate digitala komunikazioko osagarritzat hartzen zen. Orain, ezinbesteko zatia da, baina oraindik ere asko falta da eredu ekonomikoa egokitu, eta eduki horiei diru-balioa emateko. Testuinguru horretan, eztabaida berriak sortzen ari dira NFTen eta haiek dakartzaten ondasun ez-suntsikorren benetakotasunaren, jabetzaren eta balioaren kontzeptuen inguruan.

Erronka honetan datza: kultura-proiektuak eta -erakundeak gai izan daitezela beren komunitate digitaletatik salmentak edo diru-sarrerak sortzeko. Helburu horrekin, azterlanak ikertu nahi ditu kultura-eragileen eta -errealitateen profilen berezitasunak, abian jartzen ari diren ekimenak eta alor horretan emaitza positiboak lortzen ari diren proiektuen ezaugarriak.

## **SEKTORE-ALDARRIKAPENEI IREKITAKO TXOSTENA**

Sektore-aldarrikapenei irekita dago zazpigarren txostena.





## 3. KULTURKLIK

2022an, euskal kulturari buruzko erreferentziako ataria izaten jarraitu nahi dio Kulturklikek, eta Kulturaren Euskal Behatokiako datuak aztertzeke baliaidea izateari gero eta irmoago heldu nahi dio. Karga automatizatzeko prozesuetan aurrera egiten eta web-tresnak hobetzen jarraitzeaz gain, 2022rako ekimen zehatz hauek aurreikusten dira:

### · **Kulturklik eta Behatokiaren adierazleak bat etorraraztea**

Kulturklik datuak aztertzeke baliaide moduan gero eta gehiago aprobeztatzen denez, sistema bat etorri behar da Kulturaren Euskal Behatokiaren lan-moduarekin, elkarrekin adierazle berriak garatzeko, Kulturklik bilakatu dadin kulturarekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruzko egoera-txostenak lantzeke tresna guztiz erabilgarria.

### · **Kulturkliken sexu-aldagaia gehitzea**

Generoaren arabera eraginari buruzko txostenak lantzeke zailtasun nagusietako bat izaten da sexuaren arabera bereizitako daturik eza, ezkutuan geratzen baitira desberdintasunak. Gaur-gaurkoz, Kulturklikek ez du horrelako azterlanak genero-ikuspegiarekin egiten lagunduko lukeen alorrik, eta hori dela eta, sexu-aldagaia pausoka txertatuko da Kulturkliken.

### · **KulturklikPRO deialdien atala optimizatzeko bilatzailea**

KulturklikPROk, Kulturkliken atari profesionalak, mota guztietako deialdien berri ematen duen atal bat du. Informazio hori errazago eskuratzeko, deialdien bilatzaile bat landuko da, hainbat irizpideren arabera bilaketak egin ahal izateko.



## 4. KOMUNIKAZIOA

Kulturaren Euskal Behatokiaren bi komunikazio-kanal nagusitan hobekuntzak egitea aurreikusi da, Behatokiaren informaziorako eta jardueretarako sarbidea errazteko.

### · **Argitalpenen bilatzailea web-orrian**

Argitalpenen bilatzaile bat gehituko da Kulturaren Behatokiaren webgunean, Behatokiak argitaratutako lan guztiak (kuantitatiboak zein kualitatiboak) errazago eta modu intuitiboagoan aurkitu ahal izateko.

### · **Kulturkaria buletina birdiseinatzea**

*Kulturkaria* Kulturaren Euskal Behatokiaren hileroko buletina birdiseinatzearen helburua izango da identitate korporatiboa ematea, edukiak berrantolatzea eta bisualki erakargarriagoa egitea.

